

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ASTIGARRAGAKO UDALA****Kultura eta Euskera***Iragarkia*

Astigarragako Udaleko Hezkuntza batzordeak proposatuta, Tokiko Gobernu batzarrak irailaren 29an egindako bileran ikasleentzako garraio-laguntzen deialdi publikoa egitea ebatzi du.

*1. artikulua. Deialdiaren xedea.*

Astigarragan ikasteko aukerarik ez duten DBH-ko eta HHI-EPA-ko ikasleei 2019-20 ikasturtean ikastetxe publiko batera egindako bidaien laguntzetarako oinarriak ezarri eta laguntzak eskaintzea.

*2. artikulua. Onuradunak eta betebeharrak.*

2.1. 2019-20 ikasturtean edozein ikastetxe publikotan DBHko 2. zikloan edo HHI-EPAn (helduentzako heziketa) matriculatuta egon izana.

2.2. Doaneko garraiorik edo entitate publikoek edo pribatuek erabat ordaindutako garraiorik ez izatea.

2.3. Ikasturte hasieratik Astigarragan erroldatuta egotea.

2.4. Astigarragako Udalarekin zorrik ez izatea.

2.5. Lurraldebus edo Mugi txartelaren jabe izatea.

2.6. HHI-EPAn ikasten ibilitakoek erretiratu, langabetu edo familia ugariko kide izatea edo oinarrizko errenta jasotzea.

2.7. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea ekar lezakeen zigor edo administrazio zehapena dutenek ezingo dute parte hartu deialdian, ez eta horretarako gaitasungabetzen dituzten lege debekuren bat dutenek ere.

*3. artikulua. Aurrekontua.*

Astigarragako Udalaren 2020ko aurrekontuan, besteak beste deialdi honen xede diren dirulaguntzetarako 5.800 euro aurreikusitu ditu 1 0600.480.01.323.20 2020 kontu sailean.

Zenbateko orokorra aldatu ahal izango da, guztira esleutako laguntzen zenbatekoa handiagoa bada, eta aurrekontuetan kontu sail hori handitzeko aukerarik balego. Hala ez balitz, gutxitu beharreko kopurua eskatzaile guztien artean hainbanatuko litzateke.

*4. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

DBH-ko ikasle bakoitzaren asistentzia agiriaren arabera, eskola egun bakoitzeko 1,90 euro emango zaizkio, baina, ikasleko gehienez 60 euro ordainduko da.

Laguntza horiekin batera beste era bateko dirulaguntza edo laguntzak, -publikoak zein pribatuak-, eskuratu ahal izango dira. Onuradunak deialdi honetan aurreikusitako helbururako beste laguntzaren bat jasoko balu, horren zenbatekoa kendu egingo litzaike laguntzari.

*5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.*

– Dirulaguntzen eskaera normalizatua.

**AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA****Cultura y Euskera***Anuncio*

A propuesta de la comisión de Educación del Ayuntamiento, la Comisión de Gobierno celebrada el 29 de septiembre ha aprobado la convocatoria pública de ayudas de transporte para estudiantes.

*Artículo 1. Objeto de la convocatoria.*

Establecer las bases y otorgar ayudas de transporte del curso 2019-20 a alumnos-as de segundo ciclo de la ESO y de HHI-EPA de escuelas públicas que no tienen dicha opción en el municipio.

*Artículo 2. Personas beneficiarias y requisitos.*

2.1. Hallarse matriculado-a en el curso escolar 2019-2020 en el segundo ciclo de la ESO en cualquier centro público o en HHI-EPA (enseñanza para adultos).

2.2. No tener posibilidad de transporte gratuito o totalmente subvencionado por entidades públicas o privadas.

2.3. Estar empadronado-a desde el inicio del curso en Astigarraga.

2.4. No tener deudas con el Ayuntamiento de Astigarraga.

2.5. Poseer la tarjeta de Lurraldebus o Mugi.

2.6. Las personas que hayan estudiado HHI-EPA deben de ser jubiladas, paradas, ser receptoras de la renta mínima o ser familia numerosa.

2.7. No podrán presentarse a la convocatoria quienes se encuentren sancionados-as penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o incursos en prohibición legal que les inhabilite para ello.

*Artículo 3. Presupuesto.*

El ayuntamiento de Astigarraga ha habilitado en su presupuesto de 2020 de 5.800 euros en la partida presupuestaria 1 0600.480.01.323.20 2020.

Dicha cantidad podría aumentarse teniendo en cuenta las ayudas otorgadas si en el presupuesto se diesen las condiciones para ello. En caso contrario la cantidad se reduciría proporcionalmente entre todos las personas solicitantes.

*Artículo 4. Cuantía de las ayudas.*

A cada solicitante se le abonarán según el certificado de asistencia 1,90 euros por cada día del curso escolar con un máximo de 60 euros por estudiante de la ESO.

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda, ya provenga la misma de fondos públicos o privados. En ese supuesto, la ayuda percibida se restaría de la concedida con el mismo objeto por el Ayuntamiento.

*Artículo 5. Documentación que hay que presentar.*

– Solicitud normalizada.

- Nortasun agiriaren kopia eta.
- Lurraldebus edo Mugi txartelaren kopia.
- Ikastetxearen matrikulazio-agiria.

HHI-EPAko ikasleek ondokoak ere aurkeztu beharko dituzte:

- Eskoletako asistentzia agiria.
- Eskaera egiten denean langabetua, erretiratu, pentsioduna edo familia ugari kide dela edo oinarrizko errenta jasozten duela ziurtatzen duen agiria.

Ez da beharrezkoa izango erroldatze-agiria eta Udalarekin zorrik ez dituela ziurtatzen duen agiria aurkeztea, Udala ardura-tuko baita baldintza horiek betetzen direla egiaztazeaz.

Eskatzaileren batek adieraziko balu oinarri hauetan eskatutako dokumenturen bat Astigarragako Udalaren esku dagoela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez luke dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

#### 6. artikulua. Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak 2020ko urriaren 30erako aurkeztu behar dira Astigarragako Udaleko Erregistro nagusian edo azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 8.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, dirulaguntza eman ala ez erabakitzean funtsezko eragina duen ezer berezirik gertatuz gero, agiri bidez azaldu eta egiaztatu beharko da, eta ikastetxeak ziurtatu, kontuan hartu ahal izateko. Horrelakorik gertatzen bada, eskabidea 2020ko abenduaren 11a baino lehen aurkeztu beharko da eta kreditu nahikoa baldin bada emango da laguntza.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Astigarragako Udala da fitxategi honen arduraduna. Aurka egin, sartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Astigarragako udaletxean gauzatu ahal izango dira (Foru plaza 13, 20115 Astigarraga).

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute -deialdi honen xede bererako bakarrik- eta, Astigarragako Udalari baimena ematen diote, beste erakunde publiko -batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

#### 7. artikulua. Laguntzei buruzko ebazpena.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren Udaleko hezkuntza batzordean aztertuko dira eta laguntzak alkate-dekretu bidez ebatziko dira.

Erreklamazioak eta 6. artikuluan jasotzen diren kasuak, 2020ko abenduaren 30a baino lehen ebatzi beharko dira.

Eskatzailerei idatziz jakinaraziko zaie laguntza eman edo ukatu zaien, baina horretarako ezarritako epean ebazpen adierazirik ematen ez bada, eskabidea onartu dela ulertu behar da.

Ebazpen horren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Astigarragako Udalari jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

- Fotocopia del DNI y.
- Fotocopia de la tarjeta de Lurraldebus o Mugi.
- Justificante de matrícula del centro docente.

En el caso de los-as estudiantes de HHI-EPA, también deberán presentar:

- Justificante de asistencia a las clases.
- Justificante de estar en el paro, ser jubilado-a, pensionista, pertenecer a familia numerosa o ser receptor-a de la renta básica en el momento de solicitar la ayuda.

No será necesario presentar el certificado de no tener deudas con el Ayuntamiento ni el de empadronamiento pues el Ayuntamiento se encargará de verificarlo.

Si los documentos solicitados en las presentes bases se encuentran en poder del Ayuntamiento, siempre que las personas interesadas así lo declaren y el Ayuntamiento de Astigarraga tenga constancia de ello, quedarán eximidas de presentarlos.

#### Artículo 6. Presentación de solicitudes.

Se presentarán antes del 30 de octubre de 2020 en el Registro General del Ayuntamiento de Astigarraga o en las dependencias indicadas en el artículo 8.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si finalizado el plazo de presentación de solicitudes se produjeran situaciones excepcionales que afecten sustancialmente a la concesión de la asignación, se deberán acreditar y el centro certificar la nueva situación para que sea tenga en cuenta. En ese caso, la solicitud deberá presentarse antes del 13 de diciembre de 2020 y la ayuda quedará supeditada a la existencia de crédito suficiente.

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El Ayuntamiento de Astigarraga es responsable del fichero y los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante él dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: Foru plaza 13, 20115 Astigarraga.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan al Ayuntamiento de Astigarraga a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

#### Artículo 7. Resolución de las ayudas.

Una vez finalizado el plazo para la presentación de solicitudes, se analizarán en el departamento de educación y se resolverán mediante decreto de alcaldía.

Las reclamaciones y los casos recogidos en el artículo 6.º tendrán que ser resueltos antes del 30 de diciembre de 2020.

A las personas solicitantes se les comunicará por escrito si se les ha concedido o desestimado la ayuda, pero de no hacerlo en el plazo establecido, la solicitud se podrá entender estimada.

Se podrá recurrir la resolución ante el Ayuntamiento de Astigarraga en el plazo de un mes a partir de la fecha de notificación.

*8. artikulua. Dirulaguntzen kontrola.*

Ondorio hauetarako, Astigarragako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango diete onuradunei.

Onuraduna ikasturtean zehar ikastetxera joan ez bada edo ikasturtean zehar baja eman badu, ez du laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

*Xedapen gehigarria.*

Deialdi honetan arautu ez diren xehetasunak edo interpretazioaren inguruko zalantzak, udaleko hezkuntza batzordeak aztertuko ditu eta, gero, horren berri emango dio udal organo eskudunari.

Astigarraga, 2020ko irailaren 29a—Alkatea. (5069)

*Artículo 8. Control de la subvención.*

Con este fin, el Ayuntamiento de Astigarraga podrá requerir la presentación de cuantos documentos considere oportunos.

En caso de que la persona beneficiaria no haya acudido al centro docente o se haya dado de baja durante el curso, no tendrá derecho a la ayuda.

*Disposición adicional.*

Los detalles sin regular en esta convocatoria o las dudas en cuanto a la interpretación, se estudiarán en la comisión municipal de educación y serán notificadas al órgano municipal competente.

Astigarraga, a 29 de septiembre de 2020.—El alcalde. (5069)